

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2013	R21/2017	2017/12/22	Zergapekoa	Nafarroako Zerga Ogasuna/Gipuzkoako Foru Aldundia	2009ko BEZaren ordainarazpenaren eskuduntza duen Administrazioa

**Ebazpena: R21/2017**

**Espedientea: 10/2013**

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abenduaren 22a

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero jauna batzordeburu dela eta Isaac Merino Jara jauna eta Javier Muguruza Arrese jauna batzordekide, erabaki hau hartu du:

## **ERABAKIA**

PPIP SL entitateak (aurreantzean, PPIP SL) Nafarroako Zerga Ogasunaren (aurreantzean, NZO) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurreantzean, GFA) aurrean aurkeztutako eskumen-gatazka dela eta 2009-2012 urteetako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainarazpenari buruz sortutako desadostasuna erabakitzekoa, gatazka hori Arbitraje Batzorde honen aurrean izapidetzen ari baita, 10/2013 espediente-zenbakiarekin, Gabriel Casado Ollero jauna txostengile duela.

### **I. AURREKARIAK**

**1.-** JMSE jaunak aurkeztu zuen 10/2013 gatazka, 2013ko maiatzaren 2ko idazkiaren bitartez, PPIP SLren ordezkartzan, berau zelako 09-0006 BEZeko Zerga Taldeko kide nagusia eta F, SA, F II, SA eta WEC SL mendekoak.

**2.-**Gatazkaren azalpeneko idazkitik honako gertaera hauek dira azpimarragarri, gatazkaren ondorioetarako:

**a)** 2012ko apirilaren 18an, GFAk ikuskaritza-jarduketa bat hasi zuen, 09-0006 Taldeak 2009-2011 urteetan BEZaren ordaintzan egikaritutako proportzioa egiaztatzeko. 2012ko uztailaren 17ko eginbideen bitartez, 2012ko urtarril-maiatzetako aldira ere hedatu ziren jarduketak.

Espedientea	Ebazpena		Inplikaturako administrazioak		Kontzeptua
10/2013	R21/2017	2017/12/22	Zergapekoa	Nafarroako Zerga Ogasuna/Gipuzkoako Foru Aldundia	2009ko BEZaren ordainarazpenaren eskuduntza duen Administrazioa

**b)** 2012ko uztailaren 17ko adostasun-akta bakarrarekin burutu ziren jarduketak; eta, akta horretan, aldatu egiten ziren WEC SLk aurretiaz GFari soilik aitortuak zizkion operazioen zenbatekoen proportzioak; izatez, Gipuzkoari, Arabari, Estatuari eta Nafarroari aitortu behar baitzizkion.

**c)** Akta bakar bidezko erregularizazioa zela-eta, GFAk bere gain hartu zuen ordainarazpen-eskumena zuten administrazio guztiei zegokien itzulketa, 2.441.488,89 euroko zenbatekoko, eta, horren ondorioz, 1.198.333,19 euro erreklamatu zizkion NZOri.

**d)** 2012ko uztailetik aurrera, WEC SL BEZ aitortpena egiten hasi zen NZOren aurrean, akta bakarrean ezartzen zen proportzioaren arabera.

**e)** NZOk ez zuen onartu ikuskaritza-eskumeneko administrazioak ezarritako proportzioa, eta eskumen-gabetzat jo zuen bere burua 2009-2012ko BEZa ordainarazteko WEC SLri, PPIP SLren mendekoa zen heinean.

**f)** Bestalde, GFAk eskumen-gabekotzat jo zuen bere burua aipatu aldi horietako BEZa ordainarazteko, NZOri zegokion proportzioari zegokionez.

**g)** Zergapekoa 2012ko ekain-abendu bitarteko aldiari zegozkion itzulketak jaso gabe gera ez zedin, GFAk 2013ko apirilaren 29an akta bakarra ireki zuen eta bertan zehaztu zuen NZOri egotz ziezaiokeen proportzioa % 15,53koa zela (2012ko behin betikoa % 26,94koa zen), horren emaitza modura, 973.312,67 euro itzuli behar zitzaizkion, eta itzulketa hori egikaritu zuen.

**h)** 2013ko maiatzaren 6an GFAk 11/2013 gatazka aurkeztu zuen NZOren aurka, WEC SLren 2009-2012ko BEZaren ordainarazpen-eskumena zela eta.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**1.-** 2009-2012ko BEZa ordainarazteko eskuduntza datza PPIP SL zergapekoak aurkeztu duen gatazkaren oinarrian.

**2.-** Ekonomia Itunaren 29.Sei.b) artikulua beren operazioen bolumenaren proportzioen arabera ordaintzen duten zergapekoak ikuskatzeko eskumena banatzen du, eta bigarren arauan ebazten du ikuskaritza *«jardun horien ondorioz, zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo kopuru hori bi administrazioei badagokie, ikuskapen-lan horiek egin*

Espedientea	Ebazpena		Inplikaturako administrazioak		Kontzeptua
10/2013	R21/2017	2017/12/22	Zergapekoa	Nafarroako Zerga Ogasuna/Gipuzkoako Foru Aldundia	2009ko BEZaren ordainarazpenaren eskuduntza duen Administrazioa

*dituen administrazioak kobratu edo itzuliko du. Dagozkion konpentsazioak gero emango dizkiote bata besteari, beharrezkoa bada».*

GFAk bi akta bakar egin zituen kontzeptu eta aldi horiei buruz eta administrazio guztiei zegozkien itzulketak egin; horrek adierazten du zergapekoari dagokionez ontzat ematen dela ordainarazpen-eskuduntza, eta hark lortu duela bere kredituaren ordainketa osoa.

Hori dela eta, Ekonomia Itunaren 29.Sei.b).Laugarrena artikulua ebatzen duenez «*Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezarritako proportzioak subjektu pasiboak ere bete beharko ditu, likidaturako betebeharren inguruan. Horrek ez du esan nahi administrazio eskudunen artean behin betiko zehazten dituztenak bete behar ez direnik, hala ere*».

**3.-** Administrazioen arteko eztabaidak ez du eraginik zergapekoarengan, eta GFAk NZOren aurka Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztu duen 11/2013 gatazkaren baitan erabakiko da.

**4.-** Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 8. artikuluan xedatzen denaren arabera, ebazpenak osotasunekoak izan behar du, espedientetik sortutako gorabehera guztiak aintzat hartuz, aldeek azaldutakoak izan ala ez izan. Hori dela eta, balioetsi behar da lehenik Arbitraje Batzordearen eskuduntza erabaki ahal izateko eskumen-gatazka hau.

1760/2007 Errege Dekretuak, abenduaren 28koak, onetsi zuen Arbitraje Batzordearen Erregelamenduak, bere 13.3 artikuluan agintzen du «*beste kasu batzuetan, ezein administrazio bere burua eskuduntzat jotzen ez duenean, baldin eta aurreko paragrafoan aipaturako hilabeteko epean bi administrazioetatik ezein ez bada zuzendu Arbitraje Batzordera gatazka sustatzera, aski izango da zergadunak berak, hurrengo hilaren barruan, inguruabar hori Batzordeari jakinaraztea, gatazka automatikoki aurkeztutzat har dadin*».

Planteatu den gatazkan ikusten dugu administrazio batek (GFAk), ikuskaritza-eskumena erabiltzearen ondorioz, administrazio guztiei dagokien BEZaren ordainarazpen-eskuduntza beretu duela eta haiei zegozkien itzulketa burutu egin duela, zergapekoaren nahia asetuta horrela.

Burutzapen horrek alferrekoa egiten du eztabaidaren oinarria aztertzen hasi beharra.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2013	R21/2017	2017/12/22	Zergapekoa	Nafarroako Zerga Ogasuna/Gipuzkoako Foru Aldundia	2009ko BEZaren ordainarazpenaren eskuduntza duen Administrazioa

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

## **ERABAKITZEN DU**

**1.-** Gatazka hau ez onartzea.

**2.-** Ebazpen hau Gipuzkoako Foru Aldundiari, Nafarroako Zerga Ogasunari eta PPIP SLri jakinaraztea.